

Compañero de olvido en el olvido  
Estamos recordándonos sabiéndonos  
Solidarios sin nombre, solitarios  
De a uno o en montón pero insepultos

Compañero de olvido no te olvido  
Tus tormentos asoman en mis sienes blancuzcas  
El mundo cambia pero no mi mano  
Ni aunque dios olvide olvidaremos.

Mario Benedetti.

Más de treinta años de muerte y desolación, de vidas destrozadas, de mil daños sin arreglo... son un triste y vergonzoso balance que no podemos aceptar en nombre de ningún fin. Nada nos hará entender semejante dolor. Nada ni nadie nos podrá explicar las razones de la sinrazón que es asesinar. Nunca entenderemos el dolor que unos pocos infligen a tantos; y aunque no entendamos este dolor, hoy y aquí queremos recordarlo, queremos hablar de ese sufrimiento inmenso que miles de personas han sentido en carne propia y que a millones de personas nos llega y nos llaga las entrañas. Queremos repasar esas historias de sufrimiento personal, no por nada obsceno, sino para que no caigan en saco obscenamente roto, y sobre todo, para que no exista un olvido que todo se lo lleva, que se despide sin cauterizar esta brecha abierta en nuestro país. Contra ese terco olvido queremos esgrimir la memoria, que refresca la verdad, que aviva el anhelo de justicia hacia quien más ha llorado. Reivindicamos este ejercicio de memoria como terapia colectiva contra la indiferencia, la distancia o la lejanía

Ante el agravio de romperle a uno el cuerpo y arrebatarle la vida, nosotros pedimos el reconocimiento social necesario de las víctimas y de su profundo dolor. Hemos vivido en tantas ocasiones de espaldas a su dolor que es ya hora de mirarles de frente, de transmitirles nuestro reconocimiento y afecto, de hacerles llegar nuestra solidaridad más cálida, de hacerles sentir vecindad emotiva. También reconocemos lo innecesario y estéril de todas y cada una de las muertes violentas. Porque el verdugo sólo ha conseguido el desconsuelo y la angustia de

las personas que amaban a la víctima. Dolor sobre dolor en una tierra dolida.

ETA, como trágica responsable del mayor número de muertes, no logrará sacudir de nuestra memoria a las personas que asesina. Sabe matar. Pero sólo sabe hacer eso. Así pues, demandamos un reconocimiento social de las víctimas, es decir, un ejercicio permanente y cotidiano de solidaridad con sus familiares y amigos. Deben percibir que la sociedad en la que viven se esfuerza por salvaguardar los derechos y libertades de ellos y ellas. Que la ciudad en la que viven también sufre con su pérdida, que no van a estar solos en ese espacio de angustia y tristeza. Cuando la demencia terrorista golpea a una familia, nuestros ojos y nuestro aliento se dirigen hacia quien tiene desgarrado el llanto, hacia el quebrantado en su vida.

Las instituciones y nuestros políticos han de asumir, como representantes de toda la sociedad, esta tarea de memoria y solidaridad incesante y compartida. Es posible acercarse con más detenimiento y cariño hacia quien sufre el dolor. Desde la unidad, han de evitar cualquier intención de partidismo a la hora de demostrar una solidaridad sin fisuras hacia las víctimas, así como un rechazo absoluto y perenne hacia los agresores. Ningún ideario político ha de anteponerse al necesario y justo deber de memoria y reconocimiento que toda la sociedad tiene comprometido con todas y cada una de las víctimas.

Este símbolo que ha pasado de mano en mano, que ha recibido el calor de cada persona, es el testigo ágil y firme de la memoria que no olvida, de la solidaridad que no cesa y de la justicia que lograremos; es un testigo que, partiendo de un entramado de tristezas, nos recorre creando un tejido de esperanzas. Queremos desterrar, de este modo, el desamparo y la desmemoria de quienes han sufrido tamaña pérdida. Queremos fabricar una solidaridad de solidaridad palpable e impregnada de afecto y comprensión. Y también queremos expresar un último deseo: que los causantes de este interminable dolor, hoy mismo, le pongan el definitivo punto final.

Aita hil duk,  
liliak usteldurik,  
begiak herdoildurik,  
enbata belzturik,  
lanturua sakondurik,  
eta ama negarrez,  
ezin ikus zezakeat besterik,  
ezin besterik.

Anaia hil duk,  
deitoreia gogorturik,  
malkoak lehorturik,  
eztarria kiskaldurik,  
intzirina asalaturik,  
eta ama, hirotua, negarrez,  
ezin ikus zezakeat besterik,  
ezin besterik.

Juanra Madariaga.

Hilketa, hondamena eta tristura; konponezineko hamaika oinaze eta beste hainbat puskatutako bizitza... benetan onartu ezin dezakegun oinordetza lazarria da, ez baitago triskantza hau arrazoitu dezakeen helbururik. Ezerk ez digu min erraldoi hau ulertaraziko, ezta inork erailtzeko zioak argituko ere, ezin baitugu banaka batzuek hainbesteri ezarri dien nahigabea konprenitu. Oinaze hau ulertzen ez dugun arren, gogorarazi nahi dugu, hemen eta orain, biktima askok beren baitan izandako sufrikarioa, eta beste askok ere geure egiten dugula. Nork bere minean duen historia berrikusi nahi dugu, zulo galduan ezaba ez daitezen eta, batez ere, ahanzturak ezer artatu gabe alde egin ez dezan. Tematia da ahazte hori, hartara oroimena zorroztu nahi dugu; beronek egia gailentzera eramango gaitu, hots negarrik negarrenak isuri dituenarenganako justizia ekarriko dion egia. Axolagabekeria eta urruntze gaitzak senda ditzakeen oroimenezko zeregin bat eskatzen dugu.

Bizia erauzi eta gorputza hautsiaren bidegabekeriaren aurrean, guk beraien oinaze eta atsekabearen guztion onspena aldarrikatzen dugu. Beren nahigabeari bizkar emanda askotan izan gara, hortaz bada sasoia gure hurbileko jarrera sentiaraz diezaiegun, hala nola elkartasun bero askoa. Hilketak guzti-guztiek ez dute ezer onik ekarri: antzuak eta gauzeztanak izan dira erabat. Zer ote du hiltzaileak lortu, hildakoa maite zutenen nahigabea eta hondamena ez bada? Mindutako lurrari minaren minez min eman.

Hilketa gehien egin dituen ETAK ez ditu, inola ere, akabatzen dituen pertsonak gure oroimenetik erauziko. Hiltzen badaki jakin, baina ez besterik. Beraz, biktimenganako gizarte osoaren onspena eskatu behar dugu, beren lagun eta senideekiko etengabeko elkartasuna erakutsiz. Euren eskubide zein askatasuna gordetzen dituen gizartean bizi direla ere ohartarazi behar diegu; Era berean bizi diren lekuan beste askok ere negar egin dugula haien galerarekin eta ez direla, ez horixe, bakarrik izango nahigabe luze-zabal horretan jakinarazi nahi diegu. Izuikara eroak familia bat astintzen duenetan, gure begi-arnasa negarrik urratuenaren bila dabil, bakardadea hain gordina izan ez dakion.

Etengabeko eta guztion elkartasun eta oroimenezko lan itzel hau, gure erakundeek eta gure ordezkariak hartu behar dute bere gain. Izan ere, oinaze lazgarria pairatzen duenarengana hurbildu eta maitazarrea erakustea zaila barik, eskertzekoa da. Baturik eta adosturik, gure ordezkariak agertu behar dituzte bi jarrera: bata, biktimei elkartasuna eskeini edozein alderdikieriatatik at; eta bestea, erasotzaileei erabateko gaitzespen eta arbuioa. Biktima guztionganako konpromiso eta oroimenezko lan honen aurrean ezin da inolako alderdirik jarri.

Pertsona bakoitzaren berroz-bero eta eskuz-esku ibili den ikur hau, ahantzi ezin duen lekuko arin baina tinkoa da, etenik ez duen elkartasunarena eta lortuko den zuzentasunarena, alegia. Atsekabezko egitura zena itxaropenezko ehuna bihurtzen duen lekukoa, hain zuzen. Honela, sekulako galerak nozitu dituztenenganako babesgabetasuna eta oroimenik eza uxatu nahi ditugu. Elkartasunezko sarea landu nahi dugu, elkar ulertze eta maitazarrean blai. Eta azkeneko nahi bat ere adieraziko

dugu: amaigabeko oinaze honen eragileek, gaur bertan, akabo eta kito esan eta egin dezatela.